

3.a	4. JARDUERA FITXA	<b>ATERABIDE TEKNIKOAK</b>	
-----	-------------------------	----------------------------	---

EZAGUTZAK :	MAILA :	GAITASUNAK :
Aterabide teknikoak	3 "badakit egiten"	- Funtzio bera betetzen duten hainbat aterabide tekniko ezberdin proposatu.
	3 "badakit egiten"	- Proposatutako aterabide tekniko bat balidatu.
	3 "badakit egiten"	- Aterabide tekniko bat edo batzuk hautatu eta bururatu emandako funtzio bat betetzeko.

Aterabide teknikoen bilaketaren helburua hauxe da : egin nahi den objektu teknikoa diseinatu baldintza agiriak zehaztutako zerbitzu funtzioak beteak izan daitezen. Horregatik, objektu honek dauzkan funtzio teknikoak eta funtzio hauei doazkien aterabide teknikoak zehaztu behar dira.

**Ebatzi behar den arazoa :**

- Zein dira Eole X100 aerosorgailuaren funtzio teknikoak ?
- Nola hautatu aterabide tekniko bat funtzio tekniko bat lortua izan dadin ?


**1 BLOKE FUNTZIONALAK**

**Baliabideak :** DidactX aplikazioa - gelako aerosorgailua


SEKUENTZIA	IZENBURUA	BALIATZEKO ATALAK
n° 3	<b>Eole X100-en diseinua</b> (conception de l'Eole X100)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ressource - les blocs fonctionnels de l'Eole X100</li> <li>• Document - dossier technique complet consultable à l'écran</li> </ul>

**Eginbeharrak :**

1-1 Eskema hau osatu aerosorgailuaren funtzio orokorra zehazteko :



1-2 Aerosorgailuaren **bloke funtzionalak** eta hauei doazkien **elementuak** eskema honetan zehaztu :



## 2 MUGIMENDU TRANSMISIOA

Haizeak aerosorgailuaren besoak birarazten ditu. Sortzen den mugimendua, **biraketa**, sorgailuari transmititu beharko da. Baina nola gauzatuko da halako mugimendu transmisioa, zein izanen dira aterabide tekniko egokiak, zein da hautatuko duguna egin nahi dugun aerosorgailuarentzat ?

**Baliabideak** : DidactX aplikazioa - gelan dauden maketak


SEKUENTZIA	IZENBURUA	BALIATZEKO ATALAK
n° 4	<b>Transmisioa eta ekoizpena</b> ( <i>transmission et production</i> )	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ressource - les transmission de mouvement - généralités</li> <li>• Ressource - diverses transmissions de mouvement disponibles</li> </ul>

### Eginbeharra :

Baliabide ezberdinetan hartutako informazioak baliatu ondoko orrialdeko taula gisa honetan osatzeko :

- transmisio sistemak izendatu
- translazioa edo biraketa ote den gurutze batez zehaztu
- gisa berean egin mugimendu aldaketa denean
- bakoitzarentzat, ezagutzen duzun adibide bat eman

Nº	Sistemaren izena	translazioa	biraketa	eraldaketa	adibideak
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					



### 3 ATERABIDE TEKNIKOAK

Eole X100 aerosorgailuaren bidez 12 V-ko tentsioa lortuko da besoen biraketa motela baldin bada ere. Baina, haize ahula izanen den eskualdeetan erabili nahi bada, sorgailuaren biraketa azkartu beharko da eta ondorioz, errotorearen ardatza ez da sorgailuarena izanen : mugimendua errotorearen ardatzetik sorgailuaren ardatzera transmititu egin beharko da.


- Baina, zein dira egokiak izanen diren **mugimendu transmisio** horiek ? Hemen zerrenda itzazu aitzineko taulan bildutako informazioak baliatuz :

--

- Aterabide tekniko hauen arteko konparaketa egin dezagun (*Diverses transmissions de mouvements disponibles* atala berrerabil) :

Aterabide teknikoak	Alde onak	Alde txarrak

- Zein izanen da gure hautua ?



- Hautatutako aterabide teknika zehaztu : poleak eta uhala

Baliabideak :

SEKUENTZIA	IZENBURUA	BALIATZEKO ATALAK
n° 4	<b>Transmisioa eta ekoizpena</b> ( <i>transmission et production</i> )	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Ressource - Choisir poulies et courroies sur catalogue</i></li> <li>• <i>HPC hornitzailearen katalogoa (sarearen trukaketa karpetan dagoena)</i></li> </ul>

Eginbeharra : taulak osatu


*Poleak :*

	Errotorearen ardatzaren polea	Sorgailuaren ardatzaren polea
diametroa		
hortz-neurria		
hortz kopurua		
HPC katalogoaren erreferentzia		

*Uhala :*

dimentsioak	
hortz-neurria	
HPC katalogoaren erreferentzia	

*Zein da bi poleen arteko erlazioa ?*



- Potentziaren transmisio-erlazioaren kalkulua - Uhalaren kalkulua eta poleen ardatzartearen kalkulua

Baliabideak :

SEKUENTZIA	IZENBURUA	BALIATZEKO ATALAK
n° 4	Transmisioa eta ekoizpena (transmission et production)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Document - Calcul du rapport de transmission de puissance</li> <li>• Document - Calcul de la courroie et de l'entraxe des poulies</li> <li>• HPC hornitzailearen katalogoa (sarearen trukaketa karpetan dagoena)</li> </ul>

- Zenbatekoa izanen da Eole X100 aerosorgailuarentzat hautatua izan den transmisio-erlazioa ? Zergatik hori ?

- Ardatzartearen kalkulua :

Baliabideen informazioak erabiliz, 2 ardatzen arteko distantzia edo **ardatzarte**a kalkulatu duzu. Behar diren informazio guzi hauek azpi honetan zehaztuko dituzu :

L : uhalaren luzera                                    L =            mm  
 D1 : polea handiaren diametroa    D1 =           mm  
 D2 : polea tipiaren diametroa        D2 =           mm

ardatzarte

Ardatzartearen kalkularen garapena :

